



## **GIZARTE TOPAKETAK ALDAKETARAKO, AURKEZPENA:**

Jarraian aurkezten diren dokumentuak Nafarroa Baiko kide batzuek osatutako talde zenbaiten eta ezkerreko independenteak diren beste hainbaten lanaren emaitza da. Nafarroa Baitik gizarte-auzia izanen da ardatz nagusietako bat eskuinaren alternatiba osatzerakoan. Auzi horretan ekarpena egitea da, hain zuzen, "Aldaketarako gizarte-topeketa" hauen helburua.

Nafarroa Bairen helburu nagusietako bat, hain zuzen, Gobernutik nahiz oposiziotik arituta ere, gehiengoan aldeko gizarte-politika publikoak indartzeko eta gizarte-desberdintasunak nabarmen murrizteko lan egitea da, hori lortzeko baztertuenen gaineko arreta indartzuz. Gure ustez, horretarako bidea Ongizatearen Estatua indartzea et ahorren gaineko gogoeta berriz egitea da.

Topaketa hauetan, gai hauetaz interesatuak dauden guztientzat irekiak direlarik, hizpide hauek izango ditugu:

1. Gizarte Ekintza.
2. Adinekoak.
3. Aniztasun funtzionala.
4. Gizarte barneratzea.
5. Genero bortizkeria.
6. Haurtzarora eta nerabezarora.
7. Etxebizitza soziala eta integratzailea.
8. Osasungintza eta Osasun Arreta.
9. Prekarietatea eta gizarteko atal baztertuak; honen barnean dira Gazteen Lan prekarietatea, Etxeko langileak eta zaintzaileak eta atalik baztertuenen aldeko Aurrekontu alorreko Neurriak.
10. Inmigrazioa.
11. Garapenerako Lankidetzak.

Topaketa hauek antolatzerakoan, gizarteko alor desberdinetan lanean ari diren pertsona eta erakundeekin etengabeko elkarrizketa hasteko asmoa dugu.

Horrenbestez, bertan parte hartzeko gonbitea luzatzen dizugu, zeure analisiak, proposamenak, kritikak, ekarpenak zein iradokizunak estimatuko baititugu. Bidali iezaguzu, mesedez, helbide elektronikoa honetara: [encuentrosociales@nafarroabai.net](mailto:encuentrosociales@nafarroabai.net)